



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko maiatzaren 8a

46. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, sare publikoko eta hitzartuko irakasleen ordutegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Itoizko urtegia eraikitzeak orain arte ekarri dituen gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Médicos Sin Fronterasek oinarritzko medikamentuak eskuratzeko xedez eginiko kanpaina laguntzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleko tanatorioaren lokalak aldi baterako okupatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Martzilla-Peralta errepidea hobetzeko obretan bidegorri bat ere egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Barañain eta Landabengo poligonoaren artean oinezkoentzako zubi bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, norbanakoaren osasun-txartela ematerakoan Europar Batasunetik kanpoko atzeritarrei aplikatzen zaien araudiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, haurrentzako parke publikoak arautzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Itoizko urtegiak ukitutako eremuaren garapenaren aldeko Fundazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, gas-hornidurarik ez daukaten herriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko irakaskuntza-unitateek programaturiko ikastaroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, tokiko osasun-konsultategiak eraiki eta birmoldatzeko aurkezturiko eskaerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Barañain-Etxabakoizko osasun-eskualde oinarritzorako osasun etxe berri bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, liburutegien sistema, museoak eta ondarea arautzeko lege bat egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).

- Galdera, 2002ko uztailaren 1etik 2003ko maiatzaren 31ra bitartean aurreikusiriko baso-behatokien kokalekuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzako kontrataturiko aseguru-polizei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Barañainen 0-3 urte bitarteko haurrentzat ikastetxe bat garatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, ingurumen inpaktuari buruzko azterlanak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, sare publikoko eta hitzartuko irakasleen ordutegiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak sare publikoko eta hitzartuko irakasleen ordutegiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko apirilaren 29ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du sare publikoko eta itundutako irakasleen ordutegiari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Lehena. Hezkuntza publikoaren eta pribatuaren artean analogiaz edo irizpide analogoek hitz egitean, komeni da gogora ekartzea Hezkuntzarako eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1995 Lege Organikoaren berrogeita bederatzigarren artikulua, zeinaren 2. eta 3. idatz-zatiak Ikastetxe-etako parte-hartzeari, ebaluazioari eta gobernuari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak aldatu zituen. Aldaketa barne, hauxe dio artikuluko horrek:

1. Ikastetxe itunduen laguntzarako funts publikoek osotara eginen duten zenbatekoa Estatuko aurrekontu orokorretan ezarriko da eta, kasu bada, autonomia erkidegoetakoetan.

2. Aurreko idatz-zatiak aipatzen duen zenbateko osoa banatzeko, eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren zenbatekoa Estatuko aurrekontu orokorretan eta, kasu bada, autonomia erkidegoetakoetan finkatuko da, urtero. Autonomia erkidegoek ezarritakoa ezin izanen da Estatuko aurrekontuetakoa baino txikiagoa izan.

3. Aipatu moduluaren zenbatekoak bermatu egingo du irakaskuntza doakoa izatea eta hurrengoak ageriko dira bereizirik:

a) Irakasleen lansariei dagozkien kopuruak, ikastetxe-etako titularrei dagozkien Gizarte Segurantzako kotizazioak, kuota patronalari buruzkoak barne.

b) Bestelako gastuetarako zenbatekoak, hauek barne: administrazio eta zerbitzuetako langileei dagozkienak, mantentze eta kontserbazio lanetarako gastu arruntak eta inbertsio errealak berretartzekoak, inola ere kontatu gabe kapital berekiaren amortizazioak eta interesak. Kopuru horiek ikastetxe publikoetan aplikaturikoen antzeko irizpideekin ezarriko dira.

4. Irakasleen lansarietarako zenbatekoa, aurreko idatz-zatiak aipatzen duena, lansari horiek, pixkanaka, Estatuko irakasleena bezainbestekoa izaten joan dadin behar den adinakoa izanen da, maila guztietan.

5. 5. Irakasleen lansariak administrazioak ordainduko dizkie irakasleei ordainketa eskuordetu gisa eta ikastetxearen titularraren denentitatearen izenean, aurreko idatz-zatian aurreikusitako zenbatekoen kargura eta kontura. Horretarako, ikastetxearen titularrak, lan harremanean enplegatzaileak denak, kasuan kasuko nominak eta izandako aldaketak emanen dizkio administrazioari.

6. Administrazioak ezin izanen du bere gain hartu irakasleen lansariaren aldaketarik, lan hitzarmenek eragindakorik, lansariaren zenbatekoen igotze orokorraren portzentajea –3. idatz-zatiak aipatzen duena– gaituz gero.

7. Itun-araubidea garatzeko erregelamenduak aintzat hartuko ditu irakaskuntza-kooperatibaren berezitasunak, haien diru eta giza baliabideen kudeaketa errazteko asmoz”.

Artikulu horretan ikusten den bezala, analogia da irakaskuntza itunduaren irakasleen lansariak Estatuko irakasleen lansarietara hurbiltzen joate-

ko prozesu gradualea; Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, analogia hori lortu eta gainditu

egin da, taula honetan adierazirik dagoen bezala:

Analogia, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren aldean	1999	2000	2001	2002	2003
Haur eta Lehen hezkuntza	% 101,76	% 99,76	% 98,77	% 101,26	% 104,33
DBHko 1.maila	% 101,76	% 99,76	% 101,04	% 103,53	%106,61
DBHko 2. maila eta L.H.	% 99,41	% 97,46	% 97,69	% 101,15	% 105,21
Batxilergoa	% 104,62	% 102,57	% 97,69	% 105,74	% 109,70
F.K.ko irakasle atxikia	%97,35	% 95,44	%94,90	% 97,33	% 101,23

Halere, analogiaren irizpidea Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza publikoko irakasleen lansarien aldean egiten badugu, portzentajeak txi-

kiagoak dira, baina pixkanaka igotzen joaten dira, taula honetan ikus daitekeen bezala:

Analogia, Nafarroaren aldean	1999	2000	2001	2002	2003
Haur eta Lehen hezkuntza	% 87,83	% 84,86	% 88,01	% 90,22	% 92,32
DBHko 1.maila	% 86,03	% 83,12	% 88,17	% 90,34	% 92,40
DBHko 2. maila eta L.H.	% 84,72	% 81,85	% 85,70	% 88,69	% 91,61
Batxilergoa	% 89,17	% 86,15	% 89,82	% 92,70	% 95,53
F.K.ko irakasle atxikia	%85,85	% 82,94	%86,84	%89,86	%92,83

2002 eta 2003ko datuak aurreikuspenak dira, honako hauetatik ateratakoak: bi urteetarako KPI-ren igoera % 2,7koa izatea, eta Irakaskuntza itunduaren sektorean hezkuntzaren eta lan baldintzen hobekuntza progresiborako akordioa, 2000ko abenduaren 20an izenpetua, betetzea.

Irakaskuntza pribatuaren sektoreko irakasleen lanaldia, IV. lan hitzarmenaren 26. artikuluan dago ezarririk:

Urteko lanaldia, osotara, mila ehun eta laurogei (1.280) ordukoa izanen da; horietatik zortzihun eta berrogeita hamar (850) gehienez, erabiliko dira irakaslanean, eta gainerakoak irakaskuntzakoak ez diren jardueretan.

Barneko langileek berrogei ordu gehiago bete beharko dituzte urteko lanaldian.

Irakaslanerako denbora hogeita bost ordukoa izanen da asteen, astelehenetik ostiralera.

Irakaskuntzaz kanpoko jarduerak enpresaburuak banatuko ditu urtean zehar, berak eta langileek ordezkariek itundutako irizpideen arabera. Adostasunik ez badago, enpresaburuak hitzarmen honen 9. artikuluan adierazitakoaren arabera hartuko du erabakia.”

Hitzarmen honetako lanaldia berdina da irakasle guztientzat, ez da bereizten irakasleek ematen duten irakaskuntza mota edo mailaren arabera, eta Nafarroan 2000ko abenduaren 20an izenpeturiko akordioak, indarduna 2003. urtera arte, ez du puntu hori aldatzen ez garatzen.

Sektore publikoan, ordea, lanaldi desberdinak ezartzen dira, ematen den hezkuntza mailaren arabera, eta uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretuak haxe adierazten du haur eta lehen hezkuntzako lanaldiaz:

“5. artikulua. Ikastetxean zuzenena eman beharreko asteko ordutegi pertsonalaren banaketa.

Irakasleek hogeita hamar ordu emanen dituzte astean ikastetxeko jardueretan; hogeita bost irakastordu eta ikastetxean nahitaez egon beharreko beste bost osagarri. Ordu horiek guztiak agerrarazi beharko dira irakasle bakoitzaren banakako ordutegian, ikasturtean zehar eskola egun ez diren lanegunen ondoriozko konpentsazio orduak zenbat diren ere, eta kontuan harturik, halaber, irailetik ekainera bitarteko lanaldi jarraituko astean berezitasuna, gainerako lanaldi zatituko astean aldean.”

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleen lanaldiari dagokionez, foru dekretu horrek ezartzen du “irakasleek hogeita hamar ordu emanen dituzte astean ikastetxeko jardueretan, ondokoak barne: irakastordua, astean kontatu beharreko ordu osagarriak eta hilean kontatu beharreko osagarriak, ikasturtean zehar eskola egun ez diren lanegunen ondoriozko konpentsazio orduak alde batera utzirik.

Finean, haur eta lehen hezkuntzako ikastetxetan eta aldi baterako haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan ematen den derrigorrezko bigarren hezkuntzakoetan ere, eta halaber, garraioa lehen hezkuntzarekin batera erabiltzen duten derrigorrezko bigarren hezkuntzako institutuetan, 2001-2002 ikasturtean irakaskuntza publikoko irakasleek 1.056 lan ordu izanen dituzte urtean, eta horri gehitu beharko zaizkio eskola-egun ez diren 7 lanegunen orduak eta kendu, berriz, iraileko eta ekaineko lanaldi jarraitua dela-eta egiten den murrizketarenak.

Derrigorrezko bigarren hezkuntza ematen den gainerako institutuetan, bai eta bigarren hezkuntzako institutuetan ere, eskola-egun ez diren lanegunen konpentsazio orduak direla-eta, astean ordubete gehitzen da eta beraz irakasleek 1.023 lan ordu izanen dituzte astean.

Sare publikoko eta sare itunduko irakasleen lanaldietan sartutako asteko irakastorduei dago kienez, aipatzen den araudi horretan honelaxe jasotzen da, oro har:

Irakaskuntza publikoan, haur eta lehen hezkuntzetan, ikasleei zuzenean irakasten ematen den lanaldia 25 irakastordukoa da astean (jolas garaiak ere sarturik daude irakaste-lanaldian) eta astean 18tik 21 ordura bitartekoa gainerako irakaskuntzetan (uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretua).

Irakaskuntza pribatuaren arloan jardun eta osotara edo hein batean funts publikoekin aritzen diren enpresen IV. lan hitzarmenean jasorik dago irakasleen irakaste-lanaldia 25 ordukoa dela astean (2000ko urriaren 2ko ebazpena, Lan Zuzenda-

ritza Nagusiak emana, 2000ko urriaren 17ko 249. EAO).

Bigarrena. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak sare publiko eta sare pribatuko irakasleen artean ordutegi analogia ezartzeari begira eginiko aurreikuspenei buruz esan beharra daukat lanaldia enpresaburuen eta sindikatuen arteko lan hitzarmenetan ezartzen den kontzeptu bat dela, eta administrazioak har dezakeela hori bere gain, aurrekontuko diru kopuruaren arabera.

Irakaskuntza itunduaren sektorean hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza eta hobekuntza sozialak negoziatzeko oinarrien akordioaren bitartez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak bere gain hartu zuen 2001eko aurrekontuan 2000koan baino 750 milioi gehiago izatea; diru kopuru horri 750 milioi pezeta gehituko zaizkio urtero, eta horrela, 2002ko aurrekontu zuzkidura 2000koa baino 1.500 milioi pezeta handiagoa izanen da, eta 2003koa 2000koa baino 2.250 milioi pezeta handiagoa.

Ondoren, irakaskuntza itunduaren sektorean hezkuntzaren eta lan baldintzen hobekuntza progresiborako akordioan, 2000ko abenduaren 20an izenpetua, ez da inolako lanaldi murrizketa orokorrik jasotzen, eta horrek adierazten du hobekuntza sozialei dagozkien lehentasunek ez dutela oraingoz eraginik lanaldian ez eta irakaste-lanaldian, baina baliabideen zati bat 58 urtetik 60 urtera bitarteko irakasleen irakaste-lanaldia murriztera eta errelebu kontratua sustatzera bideratzen da.

Akordio hori ez du administrazioak izenpetu, baina martxoaren 12ko 66/2001 Foru Dekretuaren bidez Hezkuntza eta Kultura Departamentuak bere gain hartu zuen eta 2001eko modulu ekonomikoak aldatu zituen.

Hirugarrena. Joan zen urrian, Nafarroako Gobernuak, Unión del Pueblo Navarro eta Convergencia de Demócratas de Navarra alderdiek akordio bat izenpetu zuten Nafarroako 2002ko aurrekontu orokorrak onesteko; beste neurri batzuen artean, irakaskuntza itunduko irakasleen ordutegia irakaskuntza publikoaren ordutegiarekin partekatze prozesuari ekitea jasotzen du. Gobernuak akordio hori betetzeko asmoa du, aurrekontuen luzapenaren gainetik, dauden baliabideen eta sinatzaileen adostasuna oinarri harturik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 21ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Laguna Peña

Galdera, Itoizko urtegia eraikitzeak orain arte ekarri dituen gastuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Itoizko urtegia eraikitzeak orain arte ekarri dituen gastuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 6ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin du Itoizko urtegia eraikitzeak orain arte ekarri dituen gastuei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Zein izan dira orain arte Itoizko urtegiak foru komunitateko diru-kutxei eragindako gastuak? Gastua kontzeptu desberdinen arabera zehazturik ematea nahi dugu.

Itoizko urtegia eraikitzeak Foru Komunitateko diru publikoei gaur arte eragindako gastuak ondoko zerrendan ematen dira, kontzeptuen arabera zehazturik.

2. Zein dira Nafarroako aurrekontuaren kargura finantzatzeko dauden jarduketak?

Egun aurreikusitako jarduketak, Nafarroako Foru Komunitatearen kargura finantzatu beharrekoetatik falta direnak ondoko zerrendakoak dira, haien kostuaren gutxi gorabeherako kalkuluekin:

JARDUKETA	Zenbatekoa, gutxig. (eurotan)
Bazterrak egokitzeko proiektua gauzatzea Nagoren	1.623.000
Artzi-Orotz Betelu errepideak eraikitzea	25.000.000
Oihanbideen hobekuntzak	666.000
Ukitutako linea elektrikoaren desmuntaketa	1.382.000
Hilerrien eskualdaketa	300.000
Desjabetzapenen ordainketak eta beste	1.593.000
Zenbateko osoa, gutxi gorabehera	30.564.000

3. zein izan da orain arte gai hau dela-eta hainbat instantzian Foru Komunitatearen parte hartzea eskatu duten auziek, Auzitegi Gorenaren azken epaia barne, haren diru kutxei eragin dien kostua?

Itoizko urtegiaren kontrako koordinakundeak bultzatutako auziek Nafarroako Gobernuari eragin dioten kostuaren inguruan bi kontzeptu hartu behar dira aintzat:

a) Kostu prozesal hutsak, prokuradoreen kanpoko gastuetara mugatuak, auzi osoa Nafarroako Gobernuaren beraren bitartekoez defendatzen ari delako, Aholkularitza Jurisikorearen Zerbitzuaren bidez.

b) Itoizko urtegiaren kontrako koordinakundeak, bere fronte anitzetan, jurisdikzionalan barne, eginiko lan oztopatzaileak eragindako kostuak, horren isla izan baita obra amaitu eta jardunean jartzeko atzerapen larrian eta urte hauetan erabileraren galtzea gizartearentzat.

Esan daiteke Itoizko urtegiaren kontrako Koordinakundearen jarrera oztopatzaile eta auzizaleak, zenbait alderdi politikok babestua, nolabait, Nafarroako Foru Komunitateak milaka milioi pezetan galtzea ekarri duela.

4. Urtegia 510 kotatik gora ez betetzeko erabaki jurisdikzionalak iraunez gero, zein izanen dira epaiaren ondorioak ekonomian –ubidearekin kota baxuagoan lotzeko lan gehiago–, erabileraren araubidean –Nafarroako Ubidearen erabilgarritasuna– eta maila politikoan zein izanen dira, zure ustez, zentzugabekeria administratibo horren erantzukizuna hartu beharko duten agintari politikoak?

Kasu honetan, foru parlamentari horrek egiten dituen galderetan ohi den bezala, horiek ageri duten ezagutza eta zehaztasun falta dela-eta zaila da erantzutea.

Nafarroako egungo Gobernu esparru guztietan ari da lanean: juridikoan, administratiboan, teknikoan eta politikoan, xede bakar batekin, alegia Itoizko urtegia amaitu eta zerbitzuan jartzea jatorrizko proiektuari jarraikiz, eta horren haritik, Nafarroako Ubidea osotara erabiltzea Nafarroak kokaleku ezin hobea izan dezan bere ur baliabideen kudeaketari eta erabilerari begira.

Nolanahi ere, erantzukizun politikoak eskatu beharko balira zuk “zentsugabekeria administratibo” deitzen duzuna dela-eta, arren eskatzen dizut gogora dezazun Nafarroako Parlamentuak 1993ko otsailaren 11n eginiko Osoko Bilkura (37. Bilkura Egunkaria, 17. orrialdea eta hurrengoak), bertan egin baitzen Basa Fauna eta haren habitata babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen eztabaida. Lege hori izan da, hain zuzen, Itoizko urtegiaren kontrako koordinadorak baliatu duena Nafarroako Foru Komunitatearen kontra plazaratutako auziak oinarritzeko. Halaber eskatzen dizut azter ditzazun Osoko Bilkura hartako mintzaldiak, hartara jakinen duzulako zein izan ziren une hartan Nafarroako Foru Komunitatea “zentsugabekeria” honetara - Itoizko urtegiaren kontrako Koordinakundeak behin eta berriz erasotua- eraman duen politikaren alde egin zuten politikariak eta alderdi politikoak.

Bilkura Egunkari hori irakurrita ondorioztatu ahal izanen duzu zein agintari politikok hartu beharko luketen bere gain tamainako “zentsugabekeria” administratiboaren erantzukizuna.

5. Zenbat gastatu du orain arte Estatuko Gobernuak obra horretan?

Galdera hori zuzenean egin behar zaio administrazio eskudunari, hau da, Estatuko administrazio orokorrari.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, Médicos Sin Fronterasek oinarrizko medikamentuak eskuratzeko xedez eginiko kanpainen laguntzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Médicos Sin Fronterasek oinarrizko medikamentuak eskuratzeko xedez eginiko kanpainen laguntzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko apirilaren 15eko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, 2002ko apirilaren 10ean, galdera egin du Médicos Sin Fronterasek oinarrizko medikamentuak eskuratzeko xedez eginiko kanpainen laguntzeari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Egun Médicos Sin Fronteras erakundea “medikamentuak eskuratzeko” egiten ari den kanpaina

ez da berria lankidetzaren arloan, GKE askok eta askok 1999az geroztik salatu izan dutelako arazo hau.

Garatzeko bidean dauden herrialdeetan medikamentuak eskuratzeko oztopatzen duten faktoreak hauek dira:

- Osasun arloko logistika eta azpiegitura falta.
- Behar adinako kalitatea ez duten medikamentuak egitea.
- Medikamentuen hautaketa eta erabilera ez-arrazoizkoak.
- Tropikoko gaixotasunetarako medikamentu berriak sortzeko ikerketa eta garapen (I+G) falta.
- Prezio hagitik altuak.

Horietatik guztietatik, ekoizpen eza, I+G ez izatea eta prezio altuak dira faktore funtsezkoak. Hiru faktore horiek lotura estua dute industria farmazeutikoak munduan duen boterearekin.

Gaia behar bezala kokatzeko kontuan hartu beharra dago munduko populazioaren lau bosten garapen bidean dauden herrialdeetan bizi direla eta horiek merkatu farmazeutikoari begira kontsu-

moaren % 20 egiten dutela Bestalde, munduko populazioaren bosten batek medikamentuen % 80 kontsumitzen du.

Industria farmazeutikoa, gero eta lehiakorragoa eta etekin bila dabilena etengabe, herrialde garatuetara -bertan baitu bere merkatuaren % 80-zuzendu ditu ikerketak, munduko populazioaren lau bostenek pairatzen dituzten eritasunak ahanztirik ordea, horien merkatua eta etekina txikiagoak baitira.

Egoera horrek ekoizpen falta dakar, industria farmazeutikoarentzat ez baita errentagarria Tropikoko eritasunei aurre egiteko behar diren medikamentuak ekoiztea.

Zenbait eritasunen kasuan, garatze bidean dauden herrialdeetan pertsona askok pairatzen dituzten arren, ez da medikamenturik ekoizten, horiei aurre egiteko tratamenduak, teoriarik behintzat, badira ere. Kasu horietako bat eflortinarena da, loaren eritasunaren tratamendurako. Gaur egun 300.000 kasu diagnostikatzen dira urtean, eta artsenikoaren eratorriko melarsoprol erabiltzen da tratamendurako. Medikamentu honen kontrako erresistentzia handia da eta gaixoen % 5 nahigabeko ondorioen eraginez hiltzen da, kalkuluen arabera. Eflortina, berriz, medikamentu segurua da eta eraginkorragoa da eritasun mota honetarako, baina ekoizteari utzi zitzaion 1994an, industria farmazeutikoari etekin gutxi ekartzen zizkiolako.

Beste arazoetako bat ikerketa eta garapen falta da, eta garatze bidean dauden herrialdeetan baizik agertzen ez diren eritasun batzuen tratamendurako ez dago medikamentu eraginkorrik, ikerketa eta garapenik ez dagoelako. I+G delakorako gastuaren zati txiki bat inbertitzen da garatze bidean dauden herrialdeetako populazioarentzako medikamentuak garatzen.

Medikamentuen gehiegizko prezioa ere beste faktore garrantzitsu bat da medikamentuak eskuratzeko garaian. Tropikoko eritasun batzuek tratamendu erraza dute, baina medikamentuen prezioa altuegia da eskuratu ahal izateko. HIESaren tratamendurako medikamentuen kasua ongi eza-guna da, baina medikamentuen prezio altuak eritasun arrunt askotan du eragina: arnasbideetako infekzio akutuak, Shigellak eragindako disenteria, sexu bidezko transmisioko eritasunak etab. Maiz aurkitu daiteke medikamentu bera garestia garatze bidean dagoen herrialde batean Espainian baino. Horren ondorioz, medikamentu merkeagoak agertzen dira, baina kalitate aldetik seguruak ez direnak eta legez kanpokoak.

Horrekin batera aintzat hartu behar dira Merkataritzaren arloko jabetza intelektualeko eskubideen alderdiak (ADPIC). Jabetza intelektual horren eraginez, industria farmazeutikoak patente eskubideak ditu, askotan hura aurkezten denetik ezarririk dagoen hogeitaz urteko epea iraganik ere indarra galtzen ez dutenak, hasierako patentearen azpipatenteak daudelako, eta horiek galarazten dutelako medikamentu generiko merkeagoak eta eskuragarriagoak egitea. Dohako konferentzian (Qatar, 2001eko azaroa), akordio horietaz hitz egin zen eta arestian aipatutako akordioaren -ADPIC- zenbait artikulua, zehazki 30., 31. eta 8. artikulua, aldatzeko akordioak lortzeko ahalegina egin zen.

Esandako guztiak argitzen duenez, garatze bidean dauden herrialdeetan medikamentuak eskuratzeko ez da hain gai sinplea eta GKE bati bere eskakizunak betetzen laguntzera mugatua, munta handiko gai bat baizik, herrialde garatuetako gobernuak ez ezik nazioarteko erakundeak ere -MOE, MME etab.- jabetu beharra eskatzen duena.

Nafarroako Gobernuak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteriaren Departamentuaren bitartez, laguntzak ematen ditu medikamentuak eskura jartzeko, ez hondamendietan bakarrik, baizik eta garapenerako lankidetzaren programaren barrenean ere. Departamentuen arteko batzorde bat dago; bertan Osasun Departamentuak parte hartzen du, eta laguntza horien deialdiari eta destinoari buruzko informazioa ematen da.

Dohaintza horiek eraginkorragoak izan daitezkeen, medikamentuak emateko eta osasun programen proiektu guztiak Osasun Departamentuak ebaluatu behar izateko aldez aurretik, eta halaxe adierazi zaio dagoeneko Gizarte Ongizateko Departamentuari, eta erantzuna baiezkotzeko izan da.

Zehazki, medikamentuen dohaintzen inguruan, batzorde honek egiaztatu behar izaten du Nafarroatik egiten diren dohaintzak OMEk 1996an eman eta 1999an berrikusiriko jarraibideen eta Medikamentuaren Espainiako agentziak 1999an emaniko zirkularraren arabera egiten direla. Modu horretan bermatuko da emandako medikamentuak behar direnak direla, tratamendu osoak emateko behar den kopuruan eta guk kontsumitzen ditugun kalitate berekoak, medikamentu generikoak eta ez berrerabiliak izanen liratekeelako.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Osasun kontseilaria. Santiago Cervera Soto

Galdera, Nafarroako Ospitaleko tanatorioaren lokalak aldi baterako okupatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Nafarroako Ospitaleko tanatorioaren lokalak aldi baterako okupatzeari buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, 2002ko urtarrilaren 22an, galdera egin du Nafarroako Ospitaleko tanatorioaren lokalak Nafarroako Hileta-enpresen Elkarteak aldi baterako okupatzeari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

1. Nafarroako Ospitaleak bazituen lokal batzuk hileta eta tanatorio zerbitzua emateko, eta horren kudeaketa sektoreko enpresek kontratatzen ohi zuten.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak azaroaren 19an emaniko 1476/1998 Ebazpenaren bidez baimena eman zen hileta eta tanatorio zerbitzua kontratatzeko Nafarroako Ospitalean 1999. urterako, eta Tanatorio San Alberto, S.A.ri adjudikatu zitzaion Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak urtarrilaren 13an emaniko 17/1999 Ebazpenaren bidez.

Kontratazioa arautu zuten pleguetako 13. klausulak ezartzen zuen urte naturalen arabera luzatzeko aukera, gehienez ere kontratuaren hasierako epea iraganik beste hiru urtetarako, salbu eta aldeetako batek espresuki salatu urriaren 1 baino lehen.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, 1999ko irailaren 23ko idazki baten bidez -adjudikazio hartzaileari 1999ko irailaren 27an jakinarazita- behar den denboran eta moduan salatu zuen Tanatorio San Alberto S.A.rekin Nafarroako ospitaleko hileta eta tanatorio zerbitzua adjudikatzeko izenpeturiko kontratua, kontratuaren exekuzioak agerian utzi baitzuen beharrezkoa zela zerbitzua

emateko ordura arte ezarritako baldintzak, eta bitarteko batzuk sendotzea, interes publikoa interferentziarik izan gabe bete zedin lehia askearen printzipioak zuzentzen duen jarduera pribatuko sektore batean.

Egoera horretan, Nafarroako Hileta-enpresen Elkarteak proposamen bat egin zion Osasunbidea-nafarroako Osasun Zerbitzuari 1999ko abenduaren 24an, Nafarroako Ospitaleko lokal horiek elkarteko kideek erabiltzeko araubidearen inguruan. Proposamen horrek saihesten zuen Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legeak eskatutako publikotasun eta lehia planteatzeko beharra, elkarte horrek garai hartan Nafarroako sektore horretako enpresa guztiak hartzen baitzituen barnean, bat izan ezik, baina hura ere proposamenaren alde zegoen.

Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legeak, 54. artikuluan, ezartzen du pertsona edo entitate zehatzeko jabari publikoko ondasunak erabiltzeko, horrek beste pertsona batzuek erabiltzea mugatu edo galaraztea baldin badakar eta lan iraukorrak egitea eskatzen ez badu, aldi baterako okupaziorako baimena ematea beharko dela; baimena 53. artikuluan xedatutakoari jarraikiz emanen da eta administrazioak libreki kendu ahalko duela edozein unetan, interesatuak inongo kalte ordainetarako eskubiderik izan gabe.

53. artikulua arabera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak eskumena du aldi baterako baimen hori emateko, erakunde autonomo horrek atxikiak baititu Nafarroako Ospitaleko tanatorioaren lokalak, osasun zentro horretan daudenak.

Gaixoak hiltzean osasun arloko kudeaketa egokia eta eraginkorra izateko asmoarekin, bateagarria delako lehia askearen printzipioak zuzentzen duen jarduera pribatuko sektore batean interferentziarik ez izateko nahiarekin, elkarte horrekin hainbat bilera egin ondoren, adostu egin zen Nafarroako Hileta-enpresen Elkarteak Nafarroako Ospitaleko Tanatorioko lokalak erabiltzeko baldintzen testua.

Baimenaren xedearekin bat, ondasun horiek erabiltzeko kanonik ezartzea ez zela komeni iritzi zitzaion eta urteko iraupena ezarri zen, urte naturalan luza zitekeena, baztertu gabe Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak edozein une-

tan libreki kentzeko aukera, onuradunari inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik aitortu gabe: neurri horiek guztiak bat heldu ziren Nafarroako Ondareari buruzko Foru Lege horretan ezarritako arekin.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak abenduaren 31n emaniko 1708/1999 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Hileta-enpresen Elkarteari Nafarroako Ospitaleko Tanatorioaren lokalak alde baterako okupatzeko baimena eman zitzaion, jabari publikoko ondasun horiek erabiltzeko kanonik ezarri gabe eta elkarte horrek adostutako baldintzek arautua. Baimenari 2000ko abenduaren 31ra arteko balioa eman zitzaion, eta urte naturaletan luza zitekeen, baztertu gabe Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak edozein unetan libreki kentzeko aukera, onuradunak inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe, eta elkarte horrek okupazioa uzteko, hiru hilabeteko epearekin modu frogagarrian jakinarazita.

Zuzendari kudeatzaileak abenduaren 21ean emaniko 1762/2000 Ebazpenaren bidez 2001. urtera luzatu zen baimena; organo horrek berak urtarilaren 11n emaniko 10/2002 Ebazpenaren bidez 2002. urtera luzatu zen. Bi luzapenak abenduaren 31ko 1708/1999 Ebazpenak aipatzen dituen baldintza berberak arautzen dituzte.

Aldi baterako baimena eman zuen abenduaren 31ko 1708/1999 Ebazpenaren azalpen zatian aipatzen da aurreko egoera, zeinetan Nafarroako Ospitaleko hileta eta tanatorio zerbitzua enpresa bakar bati adjudikatua baitzegoen, eta adierazten da, halaber, sistema hori aldatzeko premia, bitarteko batzuk sendotzeko, interes publikoa interferentziarik izan gabe bete zedin lehia askearen printzipioak zuzentzen duen jarduera pribatuko sektore batean. Ondotik esaten denez, elkarte horrek sektoreko enpresa guztiak biltzen dituen, saihesten zen Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legeak eskatutako publikotasun eta lehia planteatzeko beharra.

Horrenbestez, aldi baterako okupaziorako baimena eman zuen ebazpenetik bertatik ondorioztatu daitekeenez, horren xedea izan zen Nafarroako Ospitaleko Tanatorioa izenekoaren kudeaketa sistema, alegia, enpresa adjudikazio hartzaile bakarrarena, aldatu eta haren orde bestea bat ezartzea, sektoreko enpresa guztiak erabiltzea eta haien lehia libreka bermatzen zuena, ospitalean hildako gaixoen inguruan.

Egoera berriarekin bat, zerbitzua ematean eskusibotasunak enpresa bakar batentzat dakarren etekin pribatiborik ez izatean, sektoreko

enpresa guztien lehian berdintasuna bermatzen denez, ez zen kanonik ezarri lokal horien erabilera lagatzeagatik.

2. Aldi baterako okupazioaren baimena, ebazpenak xedapen zatian adierazten zuenez, elkarte horrekin adostutako baldintzek zuzentzen dute; baldintza horiek ageri dira "Osasunbidea-Nafarroako osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Hileta-enpresen Elkarte hileta-enpresen artean Nafarroako ospitaleko beilategien inguruan akordio bat izenpetzeko protokoloa" izeneko 1999ko abenduaren 22ko idazkian, eta haren eranskinean, 1999ko abenduaren 27koan.

Protokolo horrek ezartzen ditu hileta-enpresentzat etekin batzuk, hauetatik heldu direnak: tanatorio horren lokaletan elkarte langileen eginkizuntzat hartzen diren zerbitzuak eta eginkizunak, eta elkarteak zerbitzu horien mantentze-lanek dakartzaten kostuak bere gain hartzeak eragindako zamak.

Elkarteak protokoloari eransten dion aurrekontuaren aurreikuspenean, zerbitzuaren mantentze-lanen kostu zehatza ageri da, urtean 19.549.848 pezetako zenbatekoarekin. Zerbitzua emateak dakartzen kostuak finantzatzeko, hileta zerbitzuen enpresa onuradunek 28.000 pezetako zenbatekoa ordaintzen diote elkarteari Iruñean eginiko zerbitzu bakoitzeko eta 23.000 pezeta Foru Komunitatearen gainerako tokietan eginiko bakoitzeko; zerbitzuen kopurua urtean 750 dela aurreikusten da

Gaur egun, Nafarroako Hileta-enpresen Elkarteak ez ditu sektoreko enpresa guztiak bere barnean hartzen. Egoera berria dela-eta, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari sektoreko zenbait enpresaburuk 2001eko urriaren 16an igorritako idazkiaren bidez jakinarazia, beharrezkoa izan da baimen hura emateko eta lokalen erabilerearen lagapena luzatzeko baldintzak berriz ezartzea, honako abiapuntu honetatik: hasteko, Nafarroan sektore guztietan lehian aritzen diren lehia librearen printzipioa errespetatu beharra, eta horretarako bermatu behar zela hildakoen familiek enpresetako bat libreki hautatzeko eskubidea.

Alde horretatik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak martxoaren 27an emaniko 501/2002 Ebazpenaren bidez, lokalak kudeatzen dituen elkarteari eskatu zaio ezen, protokoloaren 6.3 klausulan ezarritakoarekin bat, berma dezala Nafarroako Ospitalean hildako gaixoen inguruan, legez eraturako hileta-enpresa guztiak berdintasunez eta libreki parte hartu eta lehiatzeko aukera, elkarteak izan zein ez eta protokoloari atxikirik egon zein ez; eskatzen dio halaber hildakoaren familiari edo/eta gertukoei Nafarroan dauden hile-

ta-enpresa guztien berri emateko, zerrenda baten bidez, bertan adierazirik horien helbidea eta telefono zenbakia; azkenik, galdatzen dio hilotzen mantentze eta kontserbazioa egiteko eta gordezko ardura har dezala hileta zerbitzua egiteko hautaturiko hileta-enpresak bere gain hartu arte, protokoloaren 6.6.6 klausulak dioenarekin bat.

Amaitzeko, egia bada ere Nafarroako Hileta-enpresen Elkarteak aldi baterako okupaziorako baldintzak ez dituela bete puntualki, lagapena egin zen garaian aurreikusi ez zen egoera berri bat dela-eta, garai hartan Nafarroako sektoreko enpresa guztiak elkartean sarturik baitzeuden eta izenpetua zuten protokoloa, adierazi behar da ebazpen hark baimena emateko ezarritako baldin-

tzek bermatzen dutela gaur egun hildakoen familiariek edo hairen gertukoek hileta enpresa libreki aukeratzeko eskubideaz baliatu ahal izatea eta sektoreko enpresa guztiek, elkartekoak izan zein ez, zerbitzua berdintasunez eta libreki eskuratzea.

Azkenik, esan, Nafarroako Hileta-enpresen Elkarteak eta protokoloari atxikitako enpresek sektoreko enpresaburu gehienak hartzen dituztela bere baitan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 27an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, Martzilla-Peralta errepeidea hobetzeko obretan bidegorri bat ere egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Martzilla-Peralta errepeidea hobetzeko obretan bidegorri bat ere egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna jaunak galdera bat egin du Martzilla-Azkoien errepeidea hobetu eta zabalatzeko obretan bidegorri bat ere egiteari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Zein da herrilan Departamentuaren iritzia Martzilla-Azkoien errepeidea hobetzeko lanen trazadurari bizikletentzako errei bat gehitzeko aukerari buruz?

Iritzia kontrakoa baldin bada, zergatik?

Martzilla-Azkoien errepeidea hobetu eta zabalatzeko obretan bidegorri bat egiteko ideia ona da.

Baina hori egiteko baliabide ekonomikoak behar dira, eta urriak izaten dira beti azpiegituren arloan dauden premien aldean. Horregatik, baliabide publikoak direnez, edozein jarduketari ekin aurretik errentagarritasun ekonomiko eta soziala aztertu behar izaten da.

Bidegorriaren gai honetan, proiektuari gehitzeko aukera baloratzeko hura erabiltzeko eskaerarik dagoen, haren kostua, hortik datozen okupazio beharrak eta okupazioak ukituriko ondasun eta zerbitzuak ikertu beharko lirateke.

Une honetan betetzen ari den fasea eraikitze-proiektua erredaktatzeko laguntza teknikoaren kontratazioarena da, eta beraz ez dago eskatutakoari nahiko genukeen arrazoibide guztiekin erantzuteko behar den informazioa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 31n

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Barañain eta Landabengo poligonoaren artean oinezkoentzako zubi bat eraikitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak Barañain eta Landabengo poligonoaren artean oinezkoentzako zubi bat eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak galdera bat egin du Barañain eta Landabengo poligonoaren artean oinezkoentzako zubi bat eraikitzeari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Oinezkoentzako pasabidea eraikitzea bateagarria al da Barañaingo Udalak eskatzen duen oinezkoentzako eta ibilgailuentzako zubiarekin, ala horren ordekoa?

Ipar ingurabidearen gainean, Landabenen, oinezkoentzako pasabide berria eraikitzeak ez du inolako loturarik industrialde horretatik Barañainera egin beharreko sarbide berriarekin.

Adierazi bezala, pasabidea ipar ingurabidearen gainetik eraikiko da oinezkoek hura zeharkatzeak sortzen duen arriskua desagerrarazteko. Barañaingo sarbide berria, berriz, Landabenen Arga ibaiaren gainean egin beharreko zubi berri bat da.

2. Departamentu horrek aurreikusirik al du 2002 eta 2003ko ekitaldietan Barañaingo Udalak eskatzen duen Landabengo sarbide berria egitea? Hala bada, zer dela-eta eraiki behar da oinezkoentzako pasabide hori ?

Parlamentariaren interesa, bereziki oinezkoentzako pasabide berri baten egokierak eta beharrak eraginikoa denez, galdera hori aurreko atalean erantzun dela deritzogu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 31n

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, norbanakoaren osasun-txartela ematerakoan Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrei aplikatzen zaien araudiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak norbanakoaren osasun-txartela ematerakoan Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrei aplikatzen zaien araudiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizka-

ri Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 6ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak, 2002ko apirilaren 22an, galdera egin du norbanakoaren osasun-txartela ematerakoan Europako Batasunetik kanpoko atzerritarrei aplikatzen zaien araudiari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Orain arte ez da araurik eman 2/2000 Foru Legea garatzeko. Halere, NOTa emateko espedienteak tramitatzeke jarraibideak berberak dira Foru Komunitateko udalerrri guztietan bizi diren herritar guztientzat.

Pertsonak identifikatzeko datu zuzenak edukitzeko, Espainiako nazionalitatea duen herritar bati bere NANean ageri diren datuak eskatzen zaizkion ber gisan, atzerritarrei pasaportearen -balidin badute- ageri direnak eskatze zaizkie, fotokopia bidez, edo atzerritarren identifikazio zenbakia (AIZ), zenbaki hori badute.

Nafarroan jaio berrien kasuan, atzerritarren seme-alabak direnean, familia liburuaren fotokopia bat eskatzen da edo Erregistro Zibileko haien inskripzioarena, Foru Komunitatean bizi diren herritarren seme-alaben kasuan bezalaxe.

Europako Batasunekoak ez diren atzerritarrei, haien ezkontide edo bikotekideei, eta seme-alabei, atzerritarrak zein gure lurraldean jaioak, eskatzen zaizkien betebeharrak gainerako herritar nazionalak eskatzen zaizkien berberak dira, hau da, baldintza bakarra da Foru Komunitateko udalerrietako batean bizitzea, kasuan kasuko udalerriko udalak emaniko errolda-egiaztagiriaren bidez frogaturik, eta lehenago aipatutako identifikazio datuak aurkeztea.

Norbanakoaren Osasun txartela eskuratzeko, hau da, sistema publikoaren osasun laguntzarako eskubidea egiaztatzen duen agiria lortzeko, ez da beharrezkoa sartzeko bisaturik, ez egoitza baimenik ez eta familia biltzeko bisaturik ere.

Bestalde, ez da murrizten ari NOTaren iraupena egoitza baimenen eta bisatuen mugaegunera, 6 hilabetez luzatuz onuradunak egoitza baimena eskatu izanaren agiria aurkeztu ahal duenean; ez da ohikoa, halaber, Osasunbideak atzerritarren gaietarako zerbitzuarekin harremanetan jartzea egoitza baimenaren eskaera onartzeko ebazpenaz galdetzeko, Gobernu Ordezkaritzak luzatzen duen egoitza baimenak ez duelako inolako zerikusirik Foru Komunitateko udalerrri batean bizitzearekin, udalen erroldatze egiaztagiriak frogaturik.

Osasun txartel guztiek -atzerritarrek gure lurraldean izaniko seme-alabenak barne- 3 urteko

iraupena dute, eta beraz ez da egia atzerritarrek edo nazionalak Nafarroan izandako seme-alaben norbanakoaren osasun txartelek 6 hilabetera iraugitzen dutenik.

Nafarroako udalerrietan bizi diren atzerritar guztiei -haien lege edo administrazio egoera zein den ere- osasun laguntza ematen zaien ala ez, berriz, baietz erantzun dezaket, eta esan osasun laguntzarako egiten dituzten eskaerei erantzun ez ezik norbanakoaren osasun txartela ematen zaie-la Europako Batasunekoak ez diren atzerritar guztiei, hala eskatzen badute eta Nafarroan erroldaturik badaude.

Azkenik, argitu beharra dago Gizarte Segurantzaren afiliazioa (hau da, Gizarte Segurantzaren dokumentazioa edo txartela) eskatzeak eta horretarako bete behar diren baldintzek eta osasun txartela eskatzeak eragiten duten nahasketa.

Dirudienez, nahasi egiten dira Gizarte Segurantzaren prestazioen onuradun izateko eskaera eta norbanakoaren osasun txartela eskatzea, hau da, osasun laguntza publikoa jasotzeko eskubidearen egiaztagiria. Bi eskaera horiek desberdinak dira, erakunde desberdinek ematen dituzte eta prestazio ezberdinen ingurukoak dira: gauza bat da langilea prestazioen onuradun izatea (Gizarte Segurantzaren), "kargura dagoen seme-alaba" gisa edo umezurtz pentsiorako, eta beste gauza bat da osasun laguntzarako eskubidearen titularra izatea, norbanakoaren osasun txartelaren bitartez, zeinetan ez baitago onuradunik, eta Osasunbideak ematen duena.

Egia da Foru Komunitatean legez bizi diren langile atzerritarren adin txikiko seme-alaben, ezkontideen edo aurreko ahaideen eta senideen legezko egoitza onartzeko tramitazioak luze jotzen duela eta Gobernu Ordezkaritzak, Poliziak, Kontsulatuak eta abarrek paper asko eskatzen dutela, eta Gizarte Segurantzaren prestazioen onuradun izateari buruzko informazioa Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ematen duela, baina Osasunbideak ematen duen osasun laguntza publikoa tramitatzeke betebeharrak bakarrak hauexek dira: Foru Komunitateko udalerrietako batean erroldaturik egotea (eta horretarako baldintza bakarra da helbide bat ematea, egiazkoaz beste bat izan daitekeena, gainera) eta txartela eskatzea.

Norbanakoaren osasun txartela tramitatzeke denbora ohikoa, unean-unean dauden eskubideen kopuruaren arabera, 2 eta 3 hilabete artekoa da, eta bitarte horretan osasun laguntza behar izanez gero, normaltasunez ematen da Osasunbideko Oinarrizko Osasun Laguntza edo Laguntza

Espezializatuko edozein osasun-etxetan, ospitaleak barne.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-

goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 27an

Osasun kontseilaria. Santiago Cervera Soto

Galdera, haurrentzako parke publikoak arautzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak haurrentzako parke publikoak arautzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du haurrentzako parke publikoak arautzeari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak onartu al du foru dekretu hori, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak duela ia bi urte onartu zuenari jarraikiz?

Foru dekretu hori ez da onetsi.

2. Erantzuna ezezkoa bada, zein dira arrazoiak Nafarroako Parlamentuak, batzorde hartan zegoen UPNren taldearen sostenguarekin, onetsitako erabakia ez betetzeko?

Arrazoa da Estatuko zein Foru Komunitateko eskumenak bateratzea zail samarra dela. Izan ere, Nafarroak eskumenak ditu gizarte laguntzaren, hezkuntzaren eta haurren inguruko politikaren arloan. Badu eskumena halaber entretenimendu publikorako lokal, toki eta establezimenduen gaineko legeak egin eta beteazterako, bai eta kirol eta jostetako jardueren eremuen gaineko osasun kontrolean ere.

Baina ez da ahaztu behar, era berean, toki entitateena dela eskumena toki publiko, parke eta lorategien segurtasunaren gainean, osasun publikoaren babesean eta aisiaren okupazioan.

Horri gehitu behar zaio industriaren arloko segurtasuneko arauetatik datorren guztia, haurrentzako parke publikoetako ekipoen eta hiri altzarien fabrikazioa, instalazioa eta mantentzeari dagokionez, parke pribatuetan ere eragina duena eta ezinbestez bete beharrekoa dena.

Ildo horretan adierazi behar da ez dagoela hutsunerik arauetan haurrentzako parkeetako aparatu eta instalazioen segurtasunari eta kalitateari dagokienez, galderaren sarreran esaten den moduan. Nahiko da gogora ekartzea UNE-EN 1176.1etik 7ra bitarteko arauak, UNE-EN 1177 araua eta UNE-EN 147101 IN araua. Honakoak arautzen dituzte: josteta eremuetako ekipamenduak, segurtasun baldintza berariazko osagarriak eta entsegu metodoak zabu, txirrista, tirolina, zaldiko-maldiko, balantzin, kolpeetarako babesak eta abarretarako, eta horien ikuskapena, mantentzea eta erabilera. Arau horiek kontuan hartu behar dira proiektuak onesterakoan eta udal lizentziak ematerakoan, bai eta hiri ekipamendu hauek jar-tzean ere, haurrentzako parkeak udal eskumeneko zerbitzu publikoa direnean.

Alderdi guztiak bere baitan hartu eta, eskumenen mailak errespetatuz, zehaztutako guztia bateratuko dituen xedapen bat prestatzea, berritzailea izan dadin eta ez beste arau batzen aipamen hutsa izan gabe, lan zaila eta nekeza da, eta baliagarria eta batez ere eraginkorra dela zeharo seguru gotean gauzatuko dena.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluekin bat, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko ekainaren 6an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Itoizko urtegiak ukitutako eremuaren garapenaren aldeko Fundazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Itoizko urtegiak ukitutako eremuaren garapenaren aldeko Fundazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Itoizko urtegiak ukitutako eremuaren garapenaren aldeko Fundazioari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. Nafarroako Gobernuak 2001eko urriaren 15ean harturiko erabakiaren bidez onetsi zen "Fundación Itoiz-Canal de Navarra" izeneko fundazio pribatua eratzea eta horien estatutuak.

Nafarroako Gobernuak, 2002ko martxoaren 25ean harturiko Erabakiaren bidez, "Fundación Itoiz-Canal de Navarra" izeneko fundazio pribatuaren estatutuak aldatzea erabaki zuen.

Urriaren 15eko Erabakiaren testuan agerienez, foru administrazioak fundazioari eman beharreko dirutza 50 milioi pezetakoa da (300.506 euro). Horretarako, 2001eko gastuen aurrekontuan "Fundación Itoiz-Canal de Navarra" 30000 31000 7810 442102 kontusaila sortu zen.

Gaur egun, fundazio hori eratze bidean da, eta estatutuen eskritura publikoa egitea falta da.

2. Nafarroako Gobernuak, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamen-

tuaren bidez, lortu du plan hidrologiko nazionalaren behin betiko agiriak bil ditzan hasierako agerian ageri ez ziren zenbait konpromiso ekonomiko, beharrezkoak direnak inbertsio batzuei aurre egiteko, zehazki, Itoiz eta Esa lehengoratzeko planak eta Itoizko urtegiaren urtegi osagarriak egiteko, horren alderdi ludikoa ustiatzeko behar baitira.

Plan hidrologiko nazionala aldaketa horiekin onetsienez geroztik, Nafarroako Gobernua saiatu da etengabe Esa inguruko toki entitateekin batera lurraldea lehengoratzeko proiektu bat bultzatzen, udalen kezkak argitu eta ekimenak gauzatu ahal izateko.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak hainbat bilera egin ditu alkateekin, eta telefono bidez ere maiz izan ditu hartu-emanak haiekin. Bilera garrantzitsuena 2001eko irailaren 5ean egin zen, eta bertan Leire, Xabier, Ledea eta Zangozako ordezkariak hartu zuten parte. Ondoren, irailean ere, bilera bat egin zen Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Ingurumen Ministerioko Ur eta Kostaldean idazkariarekin. Bilkura hura baliagarria izan zen zehazteko garapen plana prestatzea udalen esku geldituko zela eta haiek aurkeztuko zutela Konfederazioan; Irunberriko Udalak ere bat egin zuen erabakiarekin.

3. Bai, aurreko atalean adierazienez.

4. Erantzuna lehenago emana dago.

Itoizko Fundazioari dagokionez, haren finantzaketa estatutuen 34. artikuluan dago jasorik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria Javier Marcotegui Ros

Galdera, gas-hornidurarik ez daukaten herriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak gas-hornidurarik ez daukaten herriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du gas-hornidurarik ez daukaten herriei buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna.

Nafarroan, gasa eramateko prozesuak aukera eman du denbora laburrean gasbideak eraikitzen joateko, lehentasuna emanez etxe, saltoki eta industrietako kontsumoa handia den tokiei; horri esker bete ahal izan da energia iturriak neurri handi-handian dibertsifikatzeko helburua, Nafarroako Gobernuak ahal diren diru kopuru txikienak jarritz, eta gas naturalarekin, alegia petroliotik eratorririko produktuak eta erregai solidoak bezain kutsakorra ez den erregai batekin, horien ordeztu erabiltzen dena. Beraz, gasa eramanez da gasbideak zeharkatzen dituen populazio guneez eta hurbil dituztenetara, erantsiriko planoan adierazitakoetara alegia.

Garapen horren emaitza da Nafarroako populazioaren ia % 82k daukala eskura energia iturri hori, eta Nafarroa dela Espainian gasa zabalduen duen erkidegoa, izan ere, kontsumitutako energiaren % 23 gasetik heldu da eta Espainian, aldiz, % 12,5; Europako Batasuneko batez bestekoa baino altuxeagoa ere bada.

Prozesuan aurrera egin ahala, gasa eramateko dauden herriei hornidura egiteko zailtasunak ere handitzen doaz, horietan balizko kontsumoa oso txikia delako hornidurarako egin beharreko inbertsioaren aldean. Ildo horretan, eta gas naturalaren horniduraren bideragarritasunari dagokionez soilik, bazterreko merkatuak dira.

Nolanahi ere, behin eta berriz esan dugun bezala, Nafarroako Gobernuak etengabe jarraituko du aurrera gasa eramateko zereginetan, betiere arrazionaltasuneko gutxieneko baldintzak betetzekotan, eta dagoeneko lortu diren emaitzek horixe berresten dute.

Horretarako, eta sektorea liberalizatu izanak ekarri dituen tarifa berriak behin ezaguturik, beste galdera batzuei emaniko erantzunetan iragarri bezala, berriz ekin zaie elkarrizketei eta azterlanei, aipatutako irizpideekin bat abiarazi ahal diren jarduketak zein diren zehazteko eta inbertsioak ordaindu beharrekoak diren onartzearen arabera (Ekonomia Ministerioaren 301/2002 Agindua), eta betetzeko egutegiaren arabera.

Iruñean, 2002ko ekainaren 7an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria Nuria Iturriagagoitia Ripoll

(Oharra: Aipatu planoan foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko irakaskuntza-unitateek programaturiko ikastaroei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko irakaskuntza-unitateek programaturiko ikastaroei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko apirilaren 29ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, 2002ko apirilaren 19an, galdera egin du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko irakaskuntza-unitateek programaturiko ikas-

taroei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

- Irakaskuntza Batzordeei 2001eko aurrekontua emateari buruzko ebazpena.

- Irakaskuntza Batzordeei 2001eko aurrekontua gehitzeari buruzko ebazpena.

- Taula – 2001ean antolaturiko ikastaroen laburpena, zehazturik parte hartzaileen kopurua eta haietako bakoitzaren lanbidea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 31n

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, tokiko osasun-kontsultategiak eraiki eta birmoldatzeko aurkezturiko eskaerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak tokiko osasun-kontsultategiak eraiki eta birmoldatzeko aurkezturiko eskaerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 2002ko maiatzaren 9an, galdera egin du tokiko osasun-kontsultategiak eraiki eta birmoldatzeko aurkezturiko eskaerei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

2000. ekitaldirako ezarritako epean aurkeztutako eskabideak

Zenb.	Zuzendariorde	Eskualde oinarrikoa	Kontsultategia	Eskatutako dirulaguntza (pezetak)
1	TUTERA	Buñuel	Cabanillas	21.000.000
2	LIZARRA	Los Arcos	Santsol	3.728.511
3	LIZARRA	Antzin-Ameskoa	Galbarra	5.989.639
4	IPARREKOA	Auritz	Orondritz	2.824.600
5	IPARREKOA	Auritz	Aria	3.062.400
6	EKIALDEKOA	Azkoién	Faltzes	49.300.000
7	LIZARRA	Allo	Arronitz	207.384
8	IPARREKOA	Irurtzun	Uharte-Arakil	13.250.000
9	TUTERA	Cascante	Ablitas	1.522.442
10	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Gorza	4.334.732
11	EKIALDEKOA	Zangoza	Zare	7.750.000
12	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Ibiltzieta	2.472.729
13	TUTERA	Buñuel	Cortes	3.446.385
14	EKIALDEKOA	Noain	Imarkoain	2.469.700
15	LIZARRA	San Adrian	Carcar	15.233.288
16	EKIALDEKOA	Zangoza	Irunberri	811.679
17	EKIALDEKOA	Gares	Añorbe	847.612
18	LIZARRA	Los Arcos	Torres del Rio	9.052.756
19	TUTERA	Valtierra	Milagro	2.403.098
20	EKIALDEKOA	Artaxoa	Artaxoa	17.637.220
21	IPARREKOA	Agoitz	Nagore	3.401.245
22	EKIALDEKOA	Gares	Obanos	862.387
23	EKIALDEKOA	Azkoién	Martzilla	18.441.591
24	EKIALDEKOA	Tafalla	Barasoain	16.321.893
25	EKIALDEKOA	Noain	Espartza-Galar	15.649.370
26	EKIALDEKOA	Gares	Eneritz	3.011.410
27	IPARREKOA	Doneztebe	Narbate	5.527.000
28	EKIALDEKOA	Gares	Muruzabal	4.833.329

29	EKIALDEKOA	Zangoza	Gabarderal	3.742.334
30	TUTERA	Valtierra-Cadreita	Arguedas	402.195
31	LIZARRA	Villatuerta	Lezaun	Baloratu gabe
32	EKIALDEKOA	Zangoza	Leatxe	4.785.803
33	EKIALDEKOA	Zangoza	Ledeia	6.281.286
34	IPARREKOA	Auritz	Aurizberri	3.788.633
35	TUTERA	Valtierra-Cadreita	Villafranca	3.814.443
36	LIZARRA	San Adrian	Andosilla	15.806.290
37	IPARREKOA	Doneztebe	Sunbilla	12.285.000
38	EKIALDEKOA	Zarrakaztelu	Figarol	8.613.980
39	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Orontze	990.705
			BATURA	292.651.069

2000. ekitaldirako ezarritako epetik kanpo aurkeztutako eskabideak.

Zenb.	Zuzendariorde	Eskualde oinarrikoa	Kontsultategia	Eskatutako dirulaguntza (pezetak)
40	IPARREKOA	Irurtzun	Arribe-Atallu	883.200
41	IPARREKOA	Atarrabia	Orikain	1.411.003
42	IPARREKOA	Uharte	Egues	Baloratu gabe
43	IPARREKOA	Irurtzun	Lekunberri	27.039.600
44	IPARREKOA	Lesaka	Arantza	921.504
45	IPARREKOA	Lesaka	Igantzi	6.820.800
46	IPARREKOA	Elizondo	Urdazubi	3.144.250
			BATURA	40.220.357

2001. ekitaldirako ezarritako epean aurkeztutako eskabideak.

Zenb.	Zuzendariordetza	Eskualde oinarrizkoa	Kontsultategia	Eskatutako dirulaguntza (pezetak)
1	EKIALDEKOA	Azkoien	Faltzes	52.475.500
2	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Ibiltzieta	2.472.729
3	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Gorza	4.334.732
4	TUTERA	Cascante	Ablitas	1.522.442
5	LIZARRA	San Adrian	Cárcar	12.236.375
6	EKIALDEKOA	Gares	Muruzabal	7.132.305
7	EKIALDEKOA	Gares	Eneritz	3.011.410
8	LIZARRA	Los Arcos	Santsol	2.385.060
9	EKIALDEKOA	Zarrakaztelu	Figarol	12.800.881
10	IPARREKOA	Auritz	Aria	3.520.600
11	TUTERA	Buñuel	Cabanillas	13.936.385
12	EKIALDEKOA	Zangoza	Leatxe	4.785.803
13	EKIALDEKOA	Artaxoa	Artaxoa	20.219.394
14	LIZARRA	San Adrian	Andosilla	5.550.601
15	EKIALDEKOA	Zangoza	Zare	7.750.000
16	EKIALDEKOA	Azkoien	Funes	14.361.180
17	LIZARRA	Antzin-Ameskoa	Aranaratxe	4.931.223
18	IPARREKOA	Irurtzun	Arribe	1.072.956
19	LIZARRA	Los Arcos	Torres del Rio	10.705.408
20	IPARREKOA	Agoitz	Nagore	4.842.400
21	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Itzalle	5.850.000
22	EKIALDEKOA	Tafalla	Barasoain	18.461.557
23	IPARREKOA	Agoitz	Oroz-Betelu	3.299.946
24	IPARREKOA	Auritz	Luzaide	5.355.017
25	IPARREKOA	Orkoien	Arazuri	17.895.900
26	EKIALDEKOA	Zangoza	Gabarderal	3.742.334
27	EKIALDEKOA	Gares	Zirauki	12.957.780
28	IPARREKOA	Ultzama	Jauntsarats	4.936.861
29	EKIALDEKOA	Izaba	Urzainki	1.537.035
30	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Nabaskoze	181.359
31	EKIALDEKOA	Noain	Ezkirotz	18.540.000
32	TUTERA	Valtierra-Cadreita	Arguedas	531.964
33	IPARREKOA	Uharte	Gorraitz	138.472.686
34	EKIALDEKOA	Izaba	Uztarroze	248.820
35	IPARREKOA	Altsasu	Olazti	17.578.000
36	EKIALDEKOA	Izaba	Burgi	102.660
37	IPARREKOA	Lesaka	Arantza	1.624.858
38	IPARREKOA	Lesaka	Igantzi	7.344.656
39	LIZARRA	Antzin-Ameskoa	Metauten	3.798.534
40	EKIALDEKOA	Zangoza	Irunberri	1.275.000
41	LIZARRA	Villatuerta	Abartzuza	5.368.516
			BATURA	459.150.867

2001. ekitaldirako ezarritako epean aurkeztutako eskabideak.

Zenb.	Zuzendariordetza	Eskualde oinarrizkoa	Kontsultategia	Eskatutako dirulaguntza (pezetak)
42	IPARREKOA	Elizondo	Irurita	2.081.652
43	LIZARRA	Viana	Aras	931.712
44	IPARREKOA	Irurtzun	Lekunberri	28.121.198
			BATURA	31.134.562

2002. ekitaldirako ezarritako epean aurkeztutako eskabideak

Zenb.	Zuzendariorde	Eskualde oinarrikoa	Kontsultategia	Eskatutako dirulaguntza (euroak)
1	IPARREKOA	Agoitz	Oroz-Betelu	19.833,07
2	IPARREKOA	Orkoien	Anotz	3.606,07
3	IPARREKOA	Lesaka	Igantzi	46.901,93
4	IPARREKOA	Ultzama	Jauntsarats	27.436,20
5	IPARREKOA	Etxarri-Aranatz	Iturmendi	18.000,00
6	IPARREKOA	Irurtzun	Betelu	821,92
7	IPARREKOA	Doneztebe	Narbarte	36.960,49
8	IPARREKOA	Irurtzun	Arribe-Atallu	6.651,37
9	IPARREKOA	Elizondo	Urdazubi	11.228,27
10	IPARREKOA	Auritz	Luzaide	4.161,98
11	IPARREKOA	Doneztebe	Eratsun	2.404,05
12	IPARREKOA	Irurtzun	Lekunberri	252.425,08
13	IPARREKOA	Auritz	Aria	24.540,53
14	IPARREKOA	Elizondo	Zugarramurdi	33.920,96
15	IPARREKOA	Doneztebe	Sunbilla	34.363,19
16	EKIALDEKOA	Azkoien	Faltzes	325.032,00
17	EKIALDEKOA	Artaxoa	Artaxoa	73.798,88
18	EKIALDEKOA	Zangoza	Zare	42.035,80
19	EKIALDEKOA	Azkoien	Funes	86.312,43
20	EKIALDEKOA	Tafalla	Barasoain	17.320,50
21	EKIALDEKOA	Gares	Eneritz	18.098,94
22	EKIALDEKOA	Gares	Muruzabal	75.882,85
23	EKIALDEKOA	Gares	Zirauki	75.201,38
24	EKIALDEKOA	Zangoza	Ageza	21.257,88
25	EKIALDEKOA	Gares	Tirapu	51.451,78
26	EKIALDEKOA	Tafalla	Puiu	19.447,53
27	EKIALDEKOA	Zangoza	Irunberri	2.668,00
28	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Ustaize	49.941,63
29	EKIALDEKOA	Erriberri	San Martin Unx	36.582,17
30	EKIALDEKOA	Erriberri	Arrada	71.147,63
31	EKIALDEKOA	Erriberri	Pitillas	53.765,28
32	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Nabaskoze	0,00
33	EKIALDEKOA	Zangoza	Leatxe	28.763,26
34	EKIALDEKOA	Noain	Ezkirotz	66.111,33
35	EKIALDEKOA	Zangoza	Oibar	7.483,49
36	LIZARRA	Los Arcos	Torres del Rio	64.340,80
37	LIZARRA	Antzin-Ameskoa	Aranaratxe	13.295,44
38	LIZARRA	San Adrian	Andosilla	29.181,42
39	LIZARRA	Antzin-Ameskoa	Murieta	22.611,91
40	LIZARRA	Lizarra	Aiegi	133.434,68
41	LIZARRA	Antzin-Ameskoa	Metauten	20.364,91
42	TUTERA	Buñuel	Cabanillas	6.344,57
43	TUTERA	Cascante	Ablitas	12.020,24
44	TUTERA	Cascante	Tulebras	22.625,80
45	TUTERA	Cascante	Murchante	14.258,00
46	IPARREKOA	Lesaka	Arantza	3.759,86
			BATURA	1.987.795,5

2002. ekitaldirako ezarritako epetik kanpo aurkeztutako eskabideak.

Zenb.	Zuzendariordetza	Eskualde oinarritzkoa	Kontsultategia	Eskatutako dirulaguntza (euroak)
47	IPARREKOA	Etxarri-Aranatz	Bakaiku	3.005
48	IPARREKOA	Doneztebe	Oitz	24.040,48
49	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Orontze	Baloratu gabe
			BATURA	27.045,48

2000. ekitaldian behin betikoz emandako dirulaguntzak

Zenb.	Zuzendariordetza	Eskualde oinarritzkoa	Kontsultategia	Kontzeptua	Emandako dirulaguntza (pezetak)
1	LIZARRA	Antzin-Ameskoa	Galbarra	Kontsultategi berriaren 2. fasea	5.989.639
2	IPARREKOA	Irurtzun	Uharte-Arakil	Kontsultategi berriaren 2. fasea	13.250.000
3	EKIALDEKOA	Azkoien	Martzilla	Kontsultategi berriaren 2. fasea	18.415.230
4	EKIALDEKOA	Zangoza	Ledeia	Kontsultategia birmoldatzeko 2. fasea	6.281.286
5	LIZARRA	San Adrian	Andosilla	Kontsultategia egiteko lokala berritzeko 2. fasea	15.806.290
6	EKIALDEKOA	Zangoza	Irunberri	Konketa bat paratzea eta aldatzea txiki batzuk	811.679
7	EKIALDEKOA	Gares	Obanos	Zoladura berria kontsultetan	862.387
8	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Orontze	Berogailua eta eskailerak konpontzea	990.705
9	EKIALDEKOA	Gares	AÑORBE	Berogailua paratzea.	847.612
10	EKIALDEKOA	Tafalla	Barasoain	Kontsultategi berria	8.751.387
11	EKIALDEKOA	Zarrakaztelu	Figarol	Kontsultategia berritzea	2.300.000
12	EKIALDEKOA	Noain	Espartza-Zaraitzu	Kontsultategia berritzea	800.000
13	IPARREKOA	Auritz	Aurizberri	Kontsultategia berritzea	3.788.633
14	LIZARRA	Los Arcos	Santsol	Eraikinaren barneko banaketa aldatzea	3.728.511
15	LIZARRA	San Adrian	Carcar	Kontsultategirako lokala berritzea	5.705.087
16	TUTERA	Buñuel	Cabanillas	Kontsultategi berria	7.748.000
17	TUTERA	Valtierra-Cadreita	Villafranca	Administrazioa ixtea	1.000.000
18	TUTERA	Valtierra-Cadreita	Arguedas	Administrazioaren eremua egiteko berrikuntza	0
19	TUTERA	Buñuel	Cortes	Berogailua aldatzea. Zureria aldatzea.	2.923.554
			BATURA		100.000.000

(Hasieran Arguedasko Udalari dirulaguntza eman zitzaion baina uko egin zion)

2001. ekitaldian behin betikoz emandako dirulaguntzak

Zenb.	Zuzendariordetza	Eskualde oinarrizkoa	Kontsultategia	Kontzeptua	Emandako dirulaguntza (pezetak)
1	EKIALDEKOA	Tafalla	Barasoain	Kontsultategia eraikitze 2. fasea	17.752.113
2	LIZARRA	San Adrian	Carcar	Kontsultategia eraikitze 2. fasea	12.236.375
3	LIZARRA	Los Arcos	Santsol	Kontsultategia eraikitze 2. fasea	2.385.060
4	EKIALDEKOA	Zarrakaztelu	Figarol	Kontsultategia eraikitze 2. fasea	12.800.881
5	TUTERA	Buñuel	Cabanillas	Kontsultategia eraikitze 2. fasea	13.936.385
6	IPARREKOA	Uharte	Egues (Gorraizko etxe-multzoa)	Kontsultategi berria.	6.352.329
7	IPARREKOA	Agoitz	Nagore	Lokalaren egokitzapena.	1.000.000
8	IPARREKOA	Auritz	Luzaide	Kontsultategia birmoldatzea.	2.000.000
9	IPARREKOA	Altsasu	Olazti	Kontsultategirako lokala berritzea	10.000.000
10	EKIALDEKOA	Artaxoa	Artaxoa	Kontsultategi berria	8.693.000
11	EKIALDEKOA	Azkoien	Funes	Kontsultategia berritzea	0
12	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Nabaskoze	Akumulagailu elektrikoak aldatzea.	181.359
13	EKIALDEKOA	Zangoza	Irunberri	Kontsultategia berritzea	1.275.000
14	LIZARRA	Villatuerta	Abartzuza	Kontsultategia berritzea	2.500.000
15	TUTERA	Valtierra-Cadreita	Arguedas	Administrazioaren eremua berritzea	531.964
16	LIZARRA	San Adrian	Andosilla	Kontsultategia eraikitze 3. fasea	1.557.000
17	LIZARRA	Antzin-Ameskoa	Metauten	Kontsultategia berritzea	3.798.534
18	IPARREKOA	Ultzama	Jauntsarats	Kontsultategia berritzea	3.000.000
				BATURA	100.000.000

(Hasieran 3.000.000. pezetako dirulaguntza eman zitzaion Funesko Udalari baina uko egin zion)
(Ekitaldia amaitu zen Eguesko udalak inolako gasturik justifikatu gabe eta, beraz, dirulaguntza ez zen ordaindu ahal izan).
Arguedasko udalak 186.998 pezeta baizik ez zuen justifikatu, eta Figarolekoak 12.711.051 pezeta).

2002. ekitaldian behin betikoz emandako dirulaguntzak

Zenb.	Zuzendariordetza	Eskualde oinarrizkoa	Kontsultategia	Kontzeptua	Emandako dirulaguntza (euroak)
1	IPARREKOA	Orkoien	Anotz	Paretetako hezetasuna kentzea.	3.606,07
2	IPARREKOA	Ultzama	Jauntsarats	Konponketak egungo kontsultategian.	27.436,20
3	IPARREKOA	Etxarri-Aranatz	ITURMENDI	Administrazioaren eremua egiteko berrikuntza	18.000,00
4	IPARREKOA	Irurtzun	Arribe-Atallu	Berogailua aldatzea.	6.651,37
5	IPARREKOA	Auritz	Luzaide	Kontsultategia birmoldatzea.	4.161,98
6	IPARREKOA	Doneztebe	Sunbilla	Kontsultategia udaletxera eramatea.	24.040,48
7	EKIALDEKOA	Azkoien	Funes	Eraikina handitzea.	76.925,00
8	EKIALDEKOA	Erriberri	Pitillas	Egungo udaletxea zaharberritzea	44.744,79
9	EKIALDEKOA	Zangoza	Ageza	Teilatua konpondu eta balkoia estaltzea.	4.808,10
10	EKIALDEKOA	Tafalla	Puiu	Zoladura, azulejoak eta instalazio elektrikoak paratzea	19.447,53
11	EKIALDEKOA	Zangoza	Irunberri	Sarrerako ateak aldatzea.	2.668,00
12	EKIALDEKOA	Erriberri	San Martin Unx	Egurraren tratamendua eta berritzea.	36.582,17
13	EKIALDEKOA	Zangoza	Oibar	Administratzailearen eremua eta baldar aldatzea.	7.483,49
14	EKIALDEKOA	Artaxoa	Artaxoa	Kontsultategi berria	73.798,88
15	EKIALDEKOA	Gares	Zirauki	Lehen solairutik beheko solairura eramatea.	52.502,61
16	LIZARRA	Los Arcos	Torres del Rio	Kontsultategi berria	52.310,43
17	LIZARRA	Antzin-Ameskoa	Metauten	Kontsultategia berritzea	20.364,91
18	LIZARRA	Lizarra	Aiegi	Ez dago kontsultategirik Berria egitea proposatu dute	110.151,82
19	TUTERA	Cascante	Ablitas	Aire girotua paratzea.	7.664,13
20	TUTERA	Cascante	Murchante	Aire girotua paratzea.	7.664,14
				BATURA	601.012,10

Kontuan hartu ez diren eskabideak

Prozedura dela-eta (epea kanpo aurkitzea, deialdiaren testura ez egokitzea etab.), behar adinako aurrekonturik ez izateagatik edo Balorazio batzordeak justifikatutzat ez jotzeagatik, eskabide hauetan ez da dirulaguntzarik eman:

2000ko ekitaldia

Zenb.	Zuzendariorde	Eskualde oinarrikoa	Kontsultategia	Eskatutako dirulaguntza (pezetak)
1	IPARREKOA	Auritz	Orondritz	2.824.600
2	IPARREKOA	Auritz	Aria	3.062.400
3	EKIALDEKOA	Azkoien	Faltzes	49.300.000
4	LIZARRA	Allo	Arronitz	207.384
5	TUTERA	Cascante	Ablitas	1.522.442
6	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Gorza	4.334.732
7	EKIALDEKOA	Zangoza	Zare	7.750.000
8	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Ibiltzieta	2.472.729
9	EKIALDEKOA	Noain	Imarkoain	2.469.700
10	LIZARRA	Los Arcos	Torres del Rio	9.052.756
11	TUTERA	Valtierra	Milagro	2.403.098
12	EKIALDEKOA	Artaxoa	Artaxoa	17.637.220
13	IPARREKOA	Agoitz	Nagore	3.401.245
14	EKIALDEKOA	Gares	Eneritz	3.011.410
15	IPARREKOA	Doneztebe	Narbarte	5.527.000
16	EKIALDEKOA	Gares	Muruzabal	4.833.329
17	EKIALDEKOA	Zangoza	Gabarderal	3.742.334
18	TUTERA	Valtierra-Cadreita	Arguedas	402.195
19	LIZARRA	Villatuerta	Lezaun	0
20	EKIALDEKOA	Zangoza	Leatxe	4.785.803
21	IPARREKOA	Doneztebe	Sunbilla	12.285.000
22	IPARREKOA	Irurtzun	Arribe-Atallu	883.200
23	IPARREKOA	Atarrabia	Orikain	1.411.003
24	IPARREKOA	Uharte	Egues	0
25	IPARREKOA	Irurtzun	Lekunberri	27.039.600
26	IPARREKOA	Lesaka	Arantza	921.504
27	IPARREKOA	Lesaka	IGANTZI	6.820.800
28	IPARREKOA	Elizondo	Urdazubi	3.144.250
			BATURA	181.245.734

2001eko ekitaldia

Zenb.	Zuzendariorde	Eskualde oinarria	Kontsultategia	Eskatutako dirulaguntza (pezetak)
1	EKIALDEKOA	Azkoien	Faltzes	52.475.500
2	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Ibiltzieta	2.472.729
3	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Gorza	4.334.732
4	TUTERA	Cascante	Ablitas	1.522.442
5	EKIALDEKOA	Gares	Muruzabal	7.132.305
6	EKIALDEKOA	Gares	Eneritz	3.011.410
7	IPARREKOA	Auritz	Aria	3.520.600
8	EKIALDEKOA	Zangoza	Leatxe	4.785.803
9	EKIALDEKOA	Zangoza	Zare	7.750.000
10	LIZARRA	Antzin-Ameskoa	Aranaratxe	4.931.223
11	IPARREKOA	Irurtzun	Arribe	1.072.956
12	LIZARRA	Los Arcos	Torres del Rio	10.705.408
13	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Itzalle	5.850.000
14	IPARREKOA	Agoitz	Oroz-Betelu	3.299.946
15	IPARREKOA	Orkoien	Arazuri	17.895.900
16	EKIALDEKOA	Zangoza	Gabarderal	3.742.334
17	EKIALDEKOA	Gares	Zirauki	12.957.780
18	EKIALDEKOA	Izaba	Urzainki	1.537.035
19	EKIALDEKOA	Noain	Ezkirotz	18.540.000
20	EKIALDEKOA	Izaba	Uztarroze	248.820
21	EKIALDEKOA	Izaba	Burgi	102.660
22	IPARREKOA	Lesaka	Arantza	1.624.858
23	IPARREKOA	Lesaka	Igantzi	7.344.656
24	IPARREKOA	Elizondo	Irurita	2.081.652
25	LIZARRA	Viana	ARAS	931.712
26	IPARREKOA	Irurtzun	Lekunberri	28.121.198
			BATURA	207.993.659

2002ko ekitaldia

Zenb.	Zuzendariorde	Eskualde oinarrizkoa	Kontsultategia	Eskatutako dirulaguntza (euroak)
1	IPARREKOA	Agoitz	Oroz-Betelu	19.833,07
3	IPARREKOA	Lesaka	Igantzi	46.901,93
6	IPARREKOA	Irurtzun	Betelu	821,92
7	IPARREKOA	Doneztebe	Narbarte	36.960,49
9	IPARREKOA	Elizondo	Urdazubi	11.228,27
11	IPARREKOA	Doneztebe	Eratsun	2.404,05
12	IPARREKOA	Irurtzun	Lekunberri	252.425,08
13	IPARREKOA	Auritz	Aria	24.540,53
14	IPARREKOA	Elizondo	Zugarramurdi	33.920,96
16	EKIALDEKOA	Azkoi	Faltzes	325.032,00
18	EKIALDEKOA	Zangoza	Zare	42.035,80
20	EKIALDEKOA	Tafalla	Barasoain	17.320,50
21	EKIALDEKOA	Gares	Eneritz	18.098,94
22	EKIALDEKOA	Gares	Muruzabal	75.882,85
25	EKIALDEKOA	Gares	Tirapu	51.451,78
28	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Ustaize	49.941,63
30	EKIALDEKOA	Erriberri	Arrada	71.147,63
32	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Nabaskoze	0,00
33	EKIALDEKOA	Zangoza	Leatxe	28.763,26
34	EKIALDEKOA	Noain	Ezkirotz	66.111,33
37	LIZARRA	Antzin-Ameskoa	Aranaratxe	13.295,44
38	LIZARRA	San Adrian	Andosilla	29.181,42
39	LIZARRA	Antzin-Ameskoa	Murieta	22.611,91
42	TUTERA	Buñuel	Cabanillas	6.344,57
44	TUTERA	Cascante	Tulebras	22.625,80
46	IPARREKOA	Lesaka	Arantza	3.759,86
47	IPARREKOA	Etxarri-Aranatz	Bakaiku	3.005
48	IPARREKOA	Doneztebe	Oitz	24.040,48
49	EKIALDEKOA	Zaraitzu	Orontze	Baloratu gabe
			BATURA	1.299.686,5

Gure ustez, urtean erabilgarri dagoen diru kopurua urriegia da dauden eskaerei erantzuteko, batez ere herri handietako kontsultategietarako. Udal kudeaketa ez da beti egokia izaten.

Osasun Departamentuak uste du ona litzatekeela urte anitzeko plan bat ezartzea arlo honetan inbertsioak egiteko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an.

Osasun kontseilaria. Santiago Cervera Soto

Galdera, Barañain-Etxabakoizko osasun-eskualde oinarrizkorako osasun etxe berri bat eraikitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aranz Echarrri jaunak Barañain-Etxabakoizko osasun-eskualde oinarrizkorako osasun etxe berri bat eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aranz Echarrri jaunak 2002ko maiatzaren 16an, galdera egin du Barañain-Etxabakoizko osasun-eskualde oinarrizkorako osasun etxe berri bat eraikitzeari buruzko eskaerak direla eta. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Barañaingo osasun-etxe berria eraikitzeko proiektua egina eta amaitua dago. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak uztailaren 9an emaniko 1066/2001 Ebazpenaren bidez Barañain-Etxabakoizko osasun etxe berria eraikitzeko obrako proiektuaren prestakuntza, segurtasun eta osasun azterlana, proiektualdiko segurtasun eta osasunaren koordinazioa kontratatzekeo gastua baimendu zen eta kontratatzekeo espedienteari ekin zitzaion. Zuzendari kudeatzaile horrek urriaren 29an emaniko 1486/2001 Ebazpenaren bidez Javier Barcos Berruezo eta Manuel Enríquez Jiménez jaunei adjudikatu zitzaion 81.756,85 euroko zenbatekoan, BEZA barne.

Barañaingo eskualde oinarrizkoan eginiko osasun kontseiluaren bilkuretan osasun etxe berriaren proiektuaren egoerari buruzko informazioa eman izan da beti. Izan ere, Osasun Kontseiluak eginiko bileran, 2002ko martxoaren 21ean, Nafarroa Iparraldeko Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariorde Alvaro Gimeno Aznar jaunak

proiektuaren edukari eta bertan tokia izanen duten espezialitate medikoei buruzko informazioa eman zuen. Osasun Kontseiluaren bilera haren akta hurrengo bileran onetsiko da.

Gobernuak 2001eko ekainaren 11n harturiko Erabakiaren bidez baimena eman zitzaion Osasunbideari Barañain-Etxabakoizko osasun etxe berria eraikitzeko proiektua eta obra kontratatzekeo eta gastua finantzatzeko urte anitzeko egutegia onets zezan.

Gobernuaren erabaki hori bat dator Osasunbideak planifikaturiko jarduketara kronogramarekin:

– 2001. urtea: Bigarren sei hilabetean deialdi publikoa, proiektua kontratatzekeo (bete egin da) aurrekontu osoaren % 4rako erreserba ekonomikoarekin.

– 2002. urtea: Urtarrilean, deialdi publikoa, eraikitzekeo lanak kontratatzekeo eta obrak hasteko, aurrekontu osoaren % 64ko erreserba ekonomikoarekin.

– 2003. urtea: Obrak amaitu eta abian jartzea, aurrekontu osoaren % 32ko erreserba ekonomikoarekin.

2002ko aurrekontu luzapenak eragotzi du aurreikusitako kronograma betetzea eta beraz bidezkoa da finantzaketarako aurreikusirik egutegia aldatzea. Hortaz, ondotik ematen dena izanen da, hau da, hasierako planteamendutik urtebeteko atzerapenarekin:

Aurrekontu aurreikuspena:

2002. urtean:	237.178 euro
2003. urtean:	1.460.957 euro
2004. urtean:	842.382 euro
Guztira	2.540.517 euro

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, liburutegien sistema, museoak eta ondarea arautzeko lege bat egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak liburutegien sistema, museoak eta ondarea arautzeko lege bat egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du liburutegien sistema, museoak eta ondarea arautzeko lege bat egiteari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1. 2002ko martxoaren 21ean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak eta neronek, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura kontseilaria naizen aldetik, kultur ondareari buruzko foru lege baterako aurreproiektu bat eta hura garatzeko erregelamenduak erredaktatzeko lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu genuen. (idazki honi erantsirik dago hitzarmenaren kopia).

2. Hitzarmenaren bosgarren klausulak ezarzen du ordainketa, osotara, 88.160 eurokoa izanen dela (BEZA barne). Ordainketa 2002rako aurrekontu indarduneko "Kultur ondarearen gaineko arauak" 451000-42120-2276-45110 kontusailaren kargura egingen da.

3. Nafarroako kultur ondarea arautuko duen foru legeak gai asko hartu beharko ditu: artxiboak eta dokumentuen ondarea, liburutegiak eta liburutegien sarea, museoak eta museoaren sarea, ondare higitzaileak, arkeologia eta ondare arkeologi-

koa, ondare arkitektonikoa eta interes kulturalerako ondasunak. Horrez gain, beharrezkoa izanen da esparru horietako bakoitza garatzeko erregelamenduak ere erredaktatzea. Horretarako oinarriko araudi indardunari buruzko azterlana egin beharko da, bai eta beste autonomia erkidego batzuetan izan den garapenari buruzkoa ere.

Horregatik guztiagatik komenigarri dirudi jurista espezializatuek osaturiko talde baten esku uztea foru legearen aurreproiektuaren eta hura garatzeko foru dekretuaren aurreproiektu nagusien erredakzioa, munta handiko proiektu horrek behar duen gaitasun teknikoa ez ezik dedikazioa eta eduki esparruen arteko testu-koherentzia ere bermatzearren.

Bestalde, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Publikoko Departamentuaren Zuzenbide Administrazioaren arloko irakasleen prestigio handia da haien esku utzitako lanak Nafarroako gizartearen nahiei egoki erantzunen diela ziurtatzeko behar den moduko bermea.

Nolanahi ere, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren aurreikusirik dagoen bezala, departamentuko langileek zeregin garrantzitsua beteko dute araudia erredaktatzeko garaian, logikoa den bezala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko ekainaren 13an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Laguna Peña

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentariaren eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, 2002ko uztailaren 1etik 2003ko maiatzaren 31ra bitartean aurreikusiriko baso-behatokien kokalekuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak 2002ko uztailaren 1etik 2003ko maiatzaren 31ra bitartean aurreikusiriko baso-behatokien kokalekuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du 2002ko uztailaren 1etik 2003ko maiatzaren 31ra bitartean aurreikusiriko baso-behatokien kokalekuei buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Lehenbizikoa. Aurtengo uztailaren 1etik 2003ko maiatzaren 31ra bitarteko epean sortzen diren premiei erantzuteko Nafarroan aurreikusitako diren basoko begiratokiak non egonen dira kokaturik?

Nafarroan aurreikusiriko basoko begiratokiak 2002ko uztailaren 1etik irailaren 30era egonen dira jardunean, hau da, udako kanpainan.

Hauexek dira kokalekuak:

- Aguilar Kodesko begiratokia.
- Arangoitiko begiratokia.
- Busquilgo begiratokia.
- Las Coronasko begiratokia.
- Eslabako begiratokia.
- Espartzako begiratokia
- Fiteroko begiratokia.
- Elomendiko begiratokia
- Girgillaoko begiratokia.
- Gorzako begiratokia.
- Erreniegako begiratokia.
- Erralako begiratokia.
- Ezkabako begiratokia
- Jurramendiko begiratokia.

– Usetxiko begiratokia.

– Vigasko begiratokia.

– Biloriako begiratokia.

Bigarrena. Zein izan dira bakoitza hautatzeko arrazoiak?

Kokalekuaren arrazoiak balizko arriskua duten tokiak zaintzeko komenigarritasunak eragindakoak dira.

Hirugarrena. Zein da bakoitzaren eraginpeko eremua eta begiratze eremuaren gehieneko distantzia?

Begiratzeko eremua zaindariaren ikusmenaren araberakoa da –prismatikoak edukitzen ditu– eta oztopoak egotea.

Laugarrena. Zein izan da arrazoa Baztan-Bidasoa eskualdean horrelako behatokiak ez paratzeko?

Udan, Baztan-Bidasoa eskualdea ez da arriskukotzat jotzen. Baina aurreikuspena desberdina da neguan, begi bistakoa baita arriskua. Baztan-Bidasoa eskualdean basoko begiratokiak jartzea alferrikakoa da, sute handi gehienak gauez gertatzen baitira.

Bost. Zein izan da eskualde horietako bakoitzean, Baztan-Bidasoa barne, azken urteotan gertaturiko suteen kopurua eta ondorioak?

Nafarroan gertaturiko basoko suteen kopurua, Baztan-Bidasoa eskualdea barne, 544koa izan da 2000. urtean eta 452koa 2001. urtean. Ondorioez esan beharra dago 2000. urtean suak 237,76 hektarea zuhaitzi erre zituela eta zuhaitzik gabeko 780,90 hektarea; 2001ean, berriz, ukitutako azalera txikiagoa izan zen, eta 193,85 hektarea zuhaitzi erre ziren eta zuhaitzik gabeko 717,68 hektarea.

Neguko kanpainari begira Barne Zuzendaritza Nagusia, Suhiltzaileen Partzuergoaren bitartez, eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusia neurriak aztertzen ari dira suteen kopurua eta horien eragin ekologikoa gutxitzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2002ko ekainaren 10ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzako kontrataturiko aseguru-polizei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Batasuna Parlamentuko Taldeak Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzako kontrataturiko aseguru-polizei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 11ko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzat 2001. eta 2003. urteetarako kontrataturiko bizi eta istripuen aseguru-polizei buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galderan azaltzen diren gaiei erantzun aurretik, zehaztu behar dira idazkiaren sarreran ageri diren zenbait adierazpen.

Batasuna Parlamentuko Taldeak dio "Aurreikusten diren polizak heriotza eta ezintasunekoak eta istripuetakoak dira. Heriotza eta ezintasuneko polizaren kasuan, aseguratuak dira, besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioak, langile finkoak eta behin-behineko langileak, baina ez aldi baterako langileak, beste urte batzuetan kontuan hartu baziren ere aseguru poliza horiek kontratatuzeko."

Horri buruz esan beharra dago egun indarra duten polizetan, abenduaren 29ko 266/2000 Foru Aginduaren bidez 2001/2002 ebatziriko lehiaketaren bidez 2001/2002 aldirako kontratatutako horietan, klausulak eta aseguraturiko taldeak 1996/2000 aldirako izan ziren berberak direla; salbuespen bakarra da prestazioen zenbatekoari KPIren iguera gogitu zitzaioela.

1973ko abuztuan izenpetu zen istripu pertsonalen arriskuaren kontra Foru Diputazioko funtzio-

narioak subjektu aseguraturizat hartzen zituen lehendabiziko banakako aseguru poliza.

Poliza hori urtero luzatzen joan zen besterik gabe, klausuletan ezarri bezala, harik eta, 1988an, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak eta sindikatuek Nafarroako Foru Komunitateko administrazio funtzionarioentzako ekitaldi horretarako baldintzen inguruan izenpeturiko akordioen ondorioz, erabaki zen arte kopuru finko bat erabiltzea funtzionario, eskualdatu eta lan-kontratadun finkoen aseguru sistema hobetzeko, helburu horrekin administrazioaren ordezkariekin eta sindikatuekin eratutako batzorde baten barrenean zehaztu ziren klausula eta baldintzekin bat, aseguru artekaritza baten aholkuak kontuan harturik.

Batzorde horrek prestatu zituen administrazio-ko langileentzako aseguru poliza berria izan beharko zenaren oinarriko klausulak. Bi poliza egotea ezarri zen, bata edozein arrazoik eragindako heriotza eta ezgaitasunaren arriskurako eta bestea arrisku horiek istripuak eraginda izanez gero. Haietako batean ere ez zeuden sarturik aldi baterako langileak.

Ondoren, sindikatueta ordezkariekin izaniko negoziazioen ondorioz, hasierako polizak aldatzen joan dira eta babestutako kasuan hobetzen (garuneko hodieta istripuak, adibidez, hasierako polizek ez baitzituzten hartzen), bai eta primaren zenbatekoa hurrengo ekitaldietako polizak adjudikatze hurrengo hitzarmenetan handitzen joateko aurrekontuko diru-kopurua ere.

Baina aseguraturitako taldea ez zen zabaldu 1996ra arte, alegia administrazioak eta sindikatuek Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen 1996tik 1999ra bitarteko lan baldintzei eta administrazioa modernizatzeari buruzkoa izenpetu zuten akordioan, "Gizarte onurak" izeneko 10. puntuan, ezarri zenean "istripu aseguru polizan aldi baterako lan kontratadunak sartzea".

Hartara, aldi horretarako eta hurrengoetarako izenpetu ziren poliza berrietan, aldi baterako langileak ere agertu dira eta egun indarra duen horretan ere agertzen dira istripuen polizan aseguraturiko taldearen barrenean.

Hori dela-eta, ondorioa da Batasuna Parlamentuko Taldeak dioena ez dela zehatza, aldi baterako langileak 1996az gozotik daudelako

sarturik istripuen polizan aseguratutako taldean, baina ez dago, eta ez da sekula egon sarturik bizi polizan aseguratutako taldean.

Parlamentuko taldeak eginiko galdera zehazten inguruan honakoa esan beharra dago:

Zer dela-eta diskriminazio hori Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko aldi baterako langileekiko?

Esan dugun bezala, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen langileen alde izenpeturiko aseguru polizen edukia sindikatuetakoa ordezkariaren eta administrazioaren artean izandako negoziazioetan lortutako akordioen ondorio dira, lan baldintza horien norainokoa eta edukia mugatu baitute.

2. Zein da aldi baterako langile horiei 2001ean eta 2002an heriotza eta ezintasun polizaren aseguru egiteak izan dezakeen kostu ekonomikoa?

Istripu polizak lan istripuak eragindako heriotza eta ezgaitasun kasuak hartzen ditu. Poliza horretan sarturik daude, esan bezala, aldi baterako langileak, eta beraz aldi baterako langileak bizi poliza indardunean aseguratutako taldean sartzeak ekar dezakeen kostua baizik ez dugu aipatuko.

Bizi poliza indardunean (edozein arrazoik, lan istripuak barne, eragindako heriotza eta ezgaitasun kasuak hartzen dituen), langile finkoengatik ordaintzen den prima 92,25 eurokoa da urteko eta pertsonako.

Aldi baterako langileen kopurua egunez egun aldatzen da, aldi baterako kontratazioa eragiten duten inguruabar bereziak direla-eta (langile finkoen eritasunagatik, oporrak, amatasuna; lanen pilaketagatik kontratua, funtzio publikoan sartzeko hautapen proben bidez bete bitarteko lanpostu hutsak etab.)

Aseguratu beharreko taldea zehatz-mehatz zehazteko zailtasun hori da banakako prima, hau da, bizi asegururako poliza batean aseguratu bakoitzari dagokiona, ezartzeko arazo nagusiakoa bat.

Istripuen gaineko polizan, aldi baterako langileak ere sarturik dauden horretan, aseguru egin duen enpresak kalkulaturik du talde horri dagokion zati proportzionala, aurreko urteko aldi baterako kontratu guztiengatik maila guztietan lansaritan ordaindu diren zenbateko guztiak hartu eta kasuan kasuko mailako soldatarekin zati eginez; horrek ematen du urteko lanaldi horren pareko denboraz kontraturik egondako pertsonen kopurua.

Baliteke irizpide hori ez izatea aseguru enpresen biziaren gaineko poliza zenbateko erabiltzen duten berbera ez izatea, bestelako inguruabar eta egoeren gaineko datuak ere eskatzen dituztelako, esate baterako sexuaren arabera multzokatzeak, adina, egoera zibila, lanpostua etab.

Halere, biziaren gaineko polizaren balioa kalkulatzeko egokia dela suposatuz gero, 2001eko aldi baterako kontratuak 5.596 pertsonaren kopurua ekarriko luke urtean. 2001erako administrazio langile finko eta behin-behinekoen bizi aseguraren polizaren prima osoa ezartzeko erabili zen batez besteko banakako prima 92,25 eurokoa bada urtean, 5.596 pertsona finko sartzeak 516.247 euroko gehikuntza ekarriko luke urtean.

3. Zein da egun Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuan aldi baterako kontraturik dauden langileen kopurua?

Lehen esan den bezala, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren esparruetan dauden aldi baterako kontratu mota desberdinak eta horien iraupen desberdina ere direla-eta, lanpostu hutsak diren edo bajak ordezkatzeko edo antzekoak diren, horiek kopurua, besterik gabe, ez da esanahi bakarrarekin erabiltzeko moduko datua, aldagarritasunagatik, etengabe mudatzen ari baita.

Horregatik, lehen aipatu dugun irizpideaz baliatuz (aurreko urteko aldi baterako kontratu guztiengatik maila guztietan ordaindutako soldaten kopuru osoa hartu eta kasuan kasuko mailako soldatarekin zati egitea), 2001ean kopurua 5.596 pertsona izanen litzateke urtean.

4. Aurreikusirik al du Gobernuak aldi baterako langileei poliza horren aseguru egitea hurrengo urteetan?

Hasteko, ez, baina, beste edozein "gizarte onuraren" kasuan bezala, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta bere langileen ordezkari legitimoek, negoziazio sindikalen ondorioz izenpetzen dituzten akordioen menpe dago.

5. Daturik al du Nafarroako Gobernuak 2001ean eta 2002an, orain arte, aldi baterako langileen artean izan diren heriotzen, ezintasun iraunkor absolutuaren eta ezintasun iraunkor osoaren kasuen kopurua?

Langileen kudeaketa integralerako sisteman ageri diren datuetatik ondorioztatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko aldi baterako langileen artean, galderak aipatzen duen

arrazoiengatik gertatu diren bajak hauexek izan direla:

Istripua:

- 2001. urtea Bat ere ez.
- 2002ko urtarrila/maiatza: Hildako bat, auto istripuan.

Beste batzuk

- 2001. urtea Hildako 1, erabateko ezintasuneko kasu bat eta behin-behineko ezintasuneko kasu bat.

- 2002ko urtarrila/maiatza: 2 hildako.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2002ko ekainaren 13an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Barañainen 0-3 urte bitarteko haurrentzat ikastetxe bat garatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak Barañainen 0-3 urte bitarteko haurrentzat ikastetxe bat garatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak galdera bat egin du Barañainen 0-3 urte bitarteko haurrentzat ikastetxe bat garatzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Barañaingo Udalak 0-3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxe berri bat eraikitzea erabaki du, eta 2002. urtearen amaieran hasi daiteke egiten.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aurrekusi duen dirulaguntza, obra gauzatzeko kostuak eta proiektuaren eta zuzendaritzaren lansariak barne, diruz lagundu ahal den moduluaren % 65ekoa da (960.000 eurotik gora). Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak 186.517,71 euroko dirulaguntza emanen du funtzionamendurako, eta mantentze-lanetarako eta familien tarifen konpentsazio gisa, berriz, 7.875 euro.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 13an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, ingurumen inpaktuari buruzko azterlanak egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ingurumen inpaktuari buruzko azterlanak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 11ko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Parlamentuko Batzarre-Askotariko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak galdera egin du ingurumen inpaktuari buruzko azterlanak egiteari buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Hondakinei buruzko lege indardunari jarraikiz, eraikuntzako obra txikietatik eta etxebizitzaren konponketetatik heldu diren obra hondakinak hiri edo udal hondakintzat hartzen dira eta, beraz, udalek edo mankomunitateek bete beharreko zerbitzua da, gutxienez, horiek bildu, garraiatu eta deuseztatzea kasuan kasuko ordenantzak ezarritako moduan.

Hori ez da traba entitate horiek, hala nahi izanez gero, zerbitzu hori eman dezaten hondakinen kopurua handiagoa denean, gastuen ordaina hartuta ezarritako tasen bidez. Izan ere, mankomunitateez gain, udal eta kontzeju asko ere behar bezala baimenduriko hondakindegien titular dira. Halaber, badira zenbait hondakindegia pribatu, sektore horretako enpresek edo elkarteek bultzatuak.


Nafarroako hondakinen kudeaketarako plan integratuko eraikuntzako hondakinen eta lurren kudeaketarako programak eta eraikuntza eta eraispenerako hondakinen plan nazionalak kudeaketa publikoa zein pribatua onartzen dute, bereizketarik gabe.

Ingurumen Departamentuak, plan integratu horrekin bat, ekoizleen beharrei erantzunen dien hondakindegien sare bat sortu eta haren kudeaketa sistema bultzatzeko eginkizun garrantzitsua bete izan du, birziklatzea aiantzi gabe.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko ekainaren 27an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 40,27 euro Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 » Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
---	--